

| TEMPORADA DE SIDRA |

LOS DATOS

- **Manzana:** Se han utilizado 13,5 millones de kilos. De ellos, 6,5 cosechados en Gipuzkoa y 3,5 millones, en Astigarraga.
- **Volumen:** La producción ronda los 10 millones de litros.
- **Botellas:** Se embotella el 90%, es decir, unos 12 millones de botellas.
- **Cualidades:** Es una sidra seca, equilibrada, de buen color, en su punto para ser catada al txotx y en verano en la botella.
- **Lluvias:** Las contraproducentes lluvias veraniegas se compensaron con el calor de septiembre.
- **Arbolado:** Diputación ha plantado este año 9.000 nuevos manzanos.

Septiembre dio equilibrio a la manzana tras las lluvias del verano

porada de sidra en Gipuzkoa, que se inicia mayoritariamente mañana viernes.

Posteriormente, la modernizada sidrería Bereciartúa acogió el acto protocolario de la apertura de la temporada 2003 del txotx, protagonizada por el campeón txirrindulari. Casi un centenar de invitados, la mayoría sidreros de toda Gipuzkoa, pudieron disfrutar del sabor de la *sagardo berria* de esta temporada y del acto protocolario. Un dantzari bailó el *Agurra* ante Olano, al son del txistu, completándose la fiesta con txalaparta y los bertsolaris Andoni Egaña y Sebastián Lizaso. Una comida clásica de sidrería cerró la jornada festiva.


Lehen txapelketa ofiziala eta dastaketa ikastaroa, iazko bi nobedade interesgarri

► Isastegin jarritako makina zentrifugatzailea ere askoren ahotan izan da

FELIX IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

Hasia da beste sagardoaldi bat eta indarrez hasi ere. Iazko udazkenean inoizko sagar-uzta bikainenena izan zen Euskal Herrian eta orain probatzera goazen sagardoek beste urte batzuetako baino bertako sagar gehiago izango dute. Hori da aurtengo nobedadeetako bat.

Urtero bezala, sagardogileek esan dute sagardo onak datoze la aurtengoak, baina hori bezeroak baieztatu behar du gero. Bezero bakoitzak bere sagardogile kuttuna izaten du -agian, sagardogile baino gehiago, sagardotegia, sagardoari ez ezik janariari eta eraikuntzaren goxotasunari ere erreparatzen diolako-. Baina baten bat egongo balitz tentatuta sagardogilez edo sagardotegiz aldatzeko, ondo etorriko zaio jakitea zein izan ziren iaz Diputazioak egin zuen txapelketan aurreneko postuetan geratu zirenak: txapelduna, ikaztegi-tako Begiristain, eta finalera iritsi zirenak, beste hauek: Gar-



Abraham Olano, sagardoaldi berria inauguratzen. [LUSA]

tziategi (Astigarraga), Gurutze-ta (Ergobia), Zabala (Aduna), Zelaia (Hernani) eta Ariziza (Zarautz).

Kostata, ederki insistitu eta gero lortu zuen Diputazioak txapelketa hau martxan jartzea, sagardogileek erreparo piska bat bazuten-eta. Azkenean, Gipuzkoako hirurogeita piko sagardogiletatik, hogeita hiruk hartu

zuten parte.

Iazko beste ekimen interesgarri bat, sagardogileentzako Fraisoron egin zen dastaketa-ikastaroa izan zen. Diputazioak Asturiasko aditu bat ekarri zuen eta, horrelaxe, profesionalak hasi zuten sagardoaren gustua osatzen duten elementuak behar bezala bereizten eta izendatzen.

Sagardoaren ama kentzeko iaz

Tolosako Isastegi sagardotegian jarri zen zentrifugatzeko makinak ere emán zuen zer esana. Hango nagusiaren adierazpenak entzun ondoren, beharbada animatuko ziren beste sagardogile batzuk bide hori jorratzera.

Txotxaren denboraldia hasia da, baina botilak du benetako garrantzia. Eta botila nolakoa den udan jakingo da.